

Elur panpinak, esne botilez

ELEMENTUAK:

- Esne botilak. Litro erdikoak eta litrokoak izan litezke, eta baita txikiagoak ere (Actimel...).

- Kola.

- Botoiak.

- Begiak.

(Begirik eta botoirik ez badaukazu, errotulagailu ezabaezinak erabiliz marraztuko dituzu. Kasu honetan, kolarik ere ez duzu behar).

- Galtzerdi zaharrak, txanoak egiteko.

- Zapi zaharrak, bufandak egiteko. Eskulan honetan kulero zaharrak erabili ditugu, baina edozerk balio dezake. Ahal bada, izan dadila koloretsua.

- Artilea, ponpoiak egiteko. Dendan erositakoak ere erabil daitezke.

- Soka, ponpoietako artilea biltzeko eta txanoak lotzeko. Ahal bada elastikoa.

- Zeta papera, sudurrak egiteko.



NOLA EGIN:

1 Botilak hautatu eta etiketak kendu.

Ez daukazu botila hustu beharrik, baina hustuta nahiago baduzu, ondo-ondo garbitu eta lehortu. Esne potoak usaina hartzen du berehala. Kola pixka bat gelditu bazaio, eta zikinkeria itsasten baldin bazaio, alkoholez garbitu.



2 Botoiak itsatsi eta begiak ipini.

Zeta paperaz kono moduko bat egin, eta hori ere itsatsi, begiak baino beheraxeago. Botila etzanda dagoela egiten baduzu, hobeto. Denbora eman, ondo lehortu arte.

3 Txanoa egin. Hartu galtzerdi zaharra eta erditik ebaki. Galtzerdiak muturrean zulorik ez badu, bi zatiak erabili ahal izango dituzu. Muturra: ebakita duen alde bi aldiz tolestu. Txorkatila: ebakita duen alde korapilatu eta alderantziz jarri, korapiloa barruan gera dadin.



4 Txanoari ponpoia jarri.

Artilea eskuko lau hatzetan bildu. Ez ditzazu hatzak estutu behar. Motroilotxoa bildu duzunean, hatzetatik atera eta erditik lotu, ahalik eta estuen. Guraizeak hartu eta artile motroilotxoari ertzak moztzen joan, borobildu arte. Erditik lotzeko erabili duzun soka txanoari lotzeko baliatu dezakezu. Kolaz ere egin daiteke. Arterik ez badaukazu edo ponpoia egin nahi ez baduzu, bolatxoa egina erosi eta itsatsi.



5 Bufanda egin.

Hartu zapi zaharra (kasu honetan kuleroak) eta zinta luze bat lortu arte moztu. Ertzetan ebakiak egiten badizkiozu, politago geldituko zaizu.

6 Panpina jantzi.

Egin dituzun elementuak panpinari jantzi eta kito, prest duzu!